

BERMEOKO OINEZKO GUNEAK (ALDE ZAHARRA ETA PORTUZARRA), ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua.—*Xedea eta lege oinarria*

1.1. Ordenantza honen xedea Bermeoko Alde Zaharreko eta Portuzarreko sarrerek eta zamalanak arautzea da. Udalerriaren gune hauen ezaugarriek oinezkoentzako erreserba egiteko leku aproposak egiten dituzte eta ordenantza honetan xedatzen diren salbuespenen zein jarraibideetatik kanpo, gune hauek oinezkoentzakoentzat erreserbatzen dira jasotako ezaugarrien arabera.

Ordenantza honen bitartez gune hauetan sartzeko nahiz zamalanak egiteko baldintzak, ordu tarteak, geldituak, denborak eta baimen motak arautzen dira:

1.2. Bermeoko Alde Zaharraren kasuan, ezin da ibilgailurik aparkatu Ordenantza honen aplikazio esparru edo eremu osoan baimendutako garajeetan ezik.

1.3. Bermeoko Alde Zaharrean ibilgailuz ibiltzeko arrazoi bakarra zamalanetako jarduerak egitea izango litzateke.

1.4. Oinezkoentzako gune bi hauetan (Alde zaharra eta Portuzarra) sartzeko orduan, ziklomotorrak eta motozikletak gainontzeko ibilgailu motordunek dituzten neurri murriztaile berberak izango dituzte.

2. artikulua.—*Espazioko Aplikazio eremua*

Bermeoko alde zaharrean:

Aplikazio eremua, ondoren aipatzen diren kaleen mugen barruan geratzen direnak osatzen dute.

Arresi Kalea, Ongintza, Andra Mari, Aurrekoetxea, Bastarre, Nardiz tar Benantzio, Lope de Haro, Prantzisko Deuna Kalea eta Prantzisko Deuna Atea.

Ondoko kaleak hartzen ditu:

Ongintza - Irakaskintza. - Talaranzko - Andra Mari. - Talakoetxea. - Basterra Ibiltokia. - Ertzilla Torrontero. - Arostegi - Aurrekoetxea. - Bidebarrieta - Areilza.-

Doniene – Sabino Arana Enparantza. – Intxausti- Nekazari. - Nardiz Tar Jon - Apioza.- Etxebarria tar Kresentzi - Aldatseta. – Erremedio - Armendurua.- Eskinarruaga - Arresi 1-12 eta 56, 58ko garajeak .- Barbara Deuna Kalea. - Kale Istua.- Landtxuko Eskilarak- Mikel Deuna Enparantza- Utsa Eskilarak - Klara Deuna Eskilarak

Lope Diaz de Haro kaleak oinezkoentzako erabateko erreserba du eta trafikoarentzat zeharo murriztuta dago.

Portuzarreko eremuan:

Porutik zuzeneko sarbidea duten kaleak kontuan hartu dira:
Nardiz tar Benantzio, Landtxuko eskilarak, Kale Istua, Klara Deuna eta Utsa eskilarak.

Eremuaren sarrera eta irteeretan behar den moduko seinaleak jarriko dira.

3. artikulua.- Ordutegia

Bermeoko alde zaharrean:

Lanegunetan eta zapatuetan zamalanak egiteko, goizeko 8:00etatik 13:00tara Alde Zaharrera sarbide osoa izango dute interesdunek.

Gunean sartzen diren ibilgailuek ezinbestez ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- Orokorrean, gunearen barruan ezin da egon 30 minutu baino gehiago.
- Ezin da gunearen barruan aparkatu.
- Gehieneko Masa Baimenduta 3,5 tona baino gehiago duten ibilgailuek ezin dute sartu.
- Luzerako 7 metro baino gehiago duten ibilgailuek ezin dute sartu.

Portuzarreko eremuan:

Portuzarreko eremuan trafikoa murrizteko helburuarekin, 13:00etatik 18:00etara, asteburu, jai egun, aste santu, uda sasoi (ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera) eta gabon sasoiaren (abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra) zirkulazioa eten eta oinezkoen lehentasuna emango zaie, gainerako ordu eta epealdietan sarbide osoa izango dute interesdunek.

4. artikulua.—Baimendutako ibilgailuak

1.-Bermeoko alde zaharrean:

Ondoren aipatzen diren guztiek oinezkoentzako gunean sartzeko baimena izango dute:

1.1. Oinezkoentzako gunean bizi diren bizilagunak:

Ibilgailuren bat eduki eta eremuaren barruko etxebizitzaren batean erroldatuta dagoen edozein pertsona fisikoa, jabe nahiz errentari izan, etxebizitza bakoitzeko baimen bi edukitzeko aukera izango da.

65 urte edota, menpekotasun edo gaixotasunaren bat daukatenez, baimendutako ibilgailu bat izan arren, beste ibilgailu birentzako baimenak jaso ahal izango dituzte. Ibilgailu hauen jabeek ez dute Alde Zaharrean erroldatuta egon behar.

Bermeon erroldatuta ez daudenek eta Alde Zaharrean kokatuta dagoen bigarren bizitxteen jabeek baimen bat izateko aukera izango dute.

Xedapen honen biatan egongo dira jarduera ekonomikorik ordaintzen ez duten etxe turistikoek jabeak, baimen bakarra eskatzeko aukerarekin.

1.2. Oinezkoentzako gunearen barruan baimendu edo onartutako garaje lekuren baten jabe edo errentaria:

Bizilekua aintzat hartu barik, oinezkoentzako gunearen barruan baimendu edo onartutako garaje lekuren bat erabiltzen duen edozein pertsonak. Garaje leku bakoitzeko autoentzako baimen bi eta motorrentzako baimen bat edukitzeko aukera izango dute.

1.3. Merkatariak eta ostalariak:

Ordenantzaren aplikazio esparruaren barruan onartutako jardueraren bati lotutako ibilgailuen jabeak. Gehienez baimen bi emango dira.

1.4. Gremioak:

Bermeon, behar moduan onartutako egoitza duten profesionalei baimen bi emango zaizkie. Ibilgailu gehiago behar izanez gero, kasuz kasu aztertu eta beharrezana justifikatuta behin behineko baimenak igorri ahalko zaizkio.

1.5. Lokalen jabeak:

Ordenantzaren aplikazio esparruaren barruan lokala jabetzan dutenei lotutako ibilgailua baimendu ahal izango zaie. Baimen bakarra eskuratu ahalko dute.

*Lokal batetan alokairu bidezko trastelekuak egotekotan, trasteleku horietako erabiltzaile bakoitzak bere titularidadeko ibilgailua sartzeko baimena eskuratzeko aukera izango du.

2.- Portuzarreko eremuan:

2.1. Portuzarretik sarbidea duten etxebizitzaren batean bizi diren bizilagunak:

Portuzarretik sarbidea duten etxebizitzaren batean erroldatuta dagoen edozein pertsona fisikoa, jabe nahiz errentari izan. Etxebizitza bakoitzeko baimen bi edukitzeko aukera

izango dute.

2.2. Amarristak:

Portuzarrean amarrea duten titularrek, baimen bi edukizeko aukera izango dute.

2.3. Portuzarreko hostalari eta merkatariak

Portuzarreko eremuan onartutako jardueraren bat duten enpresako titularrek ibilgailu bi baimendu ahal izango dituzte.

2.4. Portuzarreko ekintzaileak

Euren jarduna portuzarrean egiten duten ekintzaile eta enpresek kokapen fiskala bertan izanda, baimen bi eskatzeko aukera izango dute.

2.5. Portuzarreko lonjen erabiltzaileak

Portuzarrean lonja duten herritarrek baimen bi eskuratu ahal izango dituzte.

5. artikulua.—Behin behineko baimenak

Salbuespen gisa, oinezkoentzako gune bi hauen barruan, baimen finkoa izateko baldintzak bete gabe, epe zehatz baten, egoera konkretu baten, jardueraren bat garatzeko edo burutzeko, ibilgailuz sartzeari ezinbestekoa dela behar den moduan erakutsiz gero, edozein pertsonak —fisiko nahiz juridiko— gunean sartzeko baimena eskuratzeko prozedura jarrai dezake.

Bermeotik kanpoko gremioen kasuan, baimenak, obra lizentziei lotuta edo gunean bertan egin beharreko lan konkretuei lotuta egongo dira, bai ibilgailu kopuruari, bai iraupenari dagokionez.

Orokorrean behin behineko baimen eskaria, alde zaharrera edo portuzarreko gunera igaro aurretik egin beharko da, baina sartu ostean egiteko aukera edukiko du interesdunak, beti ere, hiru eguneko epea igaro baino lehen.

Behin behineko baimenak eskuratzeko prozedura eta informazio guztia bermeo.eus web gunean publikatuta eta beti eguneratuta mantenduko da eta eskaria egiteko bide bakarra web gune honetatik izango da.

Behin behineko baimenek ez dute sei (6) hilabete baino gehiagoko iraupen jarraiturik. Sei (6) hilabete baino gehiago behar izatekotan, epea iraungi baino lehen, baimen berri bat eskatzeko aukera izango du interesdunak.

6. artikulua.—Zerbitzu guneak alde zaharrean:

Arana tar Sabin-en enparantzako beheko aldean dauden 8 aparkalekutan, gremioetakoek; igande, jai egun eta asteartean (azokatxo dagoenean) izan ezik; aparkatzeko aukera izango dute, beti ere, gehienez ordu betez.

Gremioen ibilgailuak enpresen errotulazioa izan beharko dute.

7. artikulua.—Ikuskatze eta kontrol sistema

7.1. Ordenantza honek xedatzen duena betetzen dela bermatzeko, behar moduko bitartekoak izango dituen zerbitzua jarriko da martxan. Berrikuntza Sailak ezarritako bideo zaintza sistema bermatu eta tramitazioa eraginkortasunez burutzen dela ziurtatuko du; Udaltzaingoak zerbitzu hau kudeatu eta sistema ikuskatzeko eta kontrolatzeko beharrak beteko ditu.

7.2. Honako hauek dira sistemaren funtzionamendu jarraibideak:

Alde Zaharrera edo Portuzarreko eremura itxita dagoen tartean, sartzeko baimena lortu nahi duen edozein pertsonak baimena eskuratzeko eskabidea egingo du.

Baimen iraunkorren eskaera Berhaz bulegoan zein egoitza elektronikoan aurkeztu beharko da, kasuz kasu eskatzen den dokumentazioarekin batera. Behin behineko baimenak web guneko atal zehatzetik bideratu beharko dira.

Baimenak emateko orduan araudi honen 4. eta 5. artikuluek xedatutako sailkapen eta tipologien arabera jardungo da.

Baimen sistema honetatik kanpo gelditzen dira, alde zaharreko edo portuzarreko gunean, alojamendu turistiko edo etxe turistikoetan dauden erabiltzaileak. Kasu honetan ez da baimenik izapidetuko eta gunea irekita dagoen tartean egin beharko dituzte gune hauetako sartu irtenak.

7.3. **Baimenen eguneraketa.**

Emandako baimen iraunkorrek, urte naturaleko iraupena izango dute eta modu automatikoan luzatuko dira, urtez urte, ofizioz egin daitezkeen konprobaketen kalte gabe.

Interesdunak, ematen den edozein aldaketa edo eguneraketan berri emango dio Udalari, une oro dituen datuak errealitatearekin bat etorri daitezen.

Interesdunak edozein momentutan ezeztatu dezake eman zaion baimena, idatziz eskaria aurkeztuta.

Bost (5)urtero, berriztapen prozesua martxan jarriko du Udalak, datu basea eguneratu eta eragile guztiei duten baimena berriztatzera deituta.

8. artikulua.—Baimentze erregimena: Baimen iraunkorrak

Oinezkoentzako gunean sartzeko baldintzak betetzen dituzten interesdunek baimen motaren eta gune motaren arabera, kasuz kasu behar den dokumentazioa aurkeztu, eta

ondoren azaltzen den moduan, baldintzak betetzen direla frogatu beharko dute, Berhaz bulegora hurbildu edo Egoitza elektronikotik sartuta:

8.1. Alde Zaharrean:

8.1.1. Ibilgailuren bat eduki edo ibilgailuaren berariazko erabilera egin eta eremuaren barruko etxebizitzaren batean erroldatuta dagoen edozein pertsona fisiko, etxebizitza baten jabe nahiz arrendatari izan:

Baldintzak:

- Ibilgailua, aplikazio esparruaren barruko etxebizitza batean erroldatuta dagoen pertsona fisikoaren izenean egongo da.
- Erroldatze helbidea eta gidatze baimenarena berbera izan beharko da.
- Indarrean dagoen gida baimena edukitzea.
- Ibilgailua Bermeoko Udalaren Trakzio Mekanikako Ibilgailuen gaineko Zergaren Padroian egon beharko da, eta ordainketa egunean egongo da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.
- NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea/ ziurtagiri digitala.
- Zirkulatze baimena tituludun berberarekin.
- Behar den kasuetan, lan zioengatik erabilera atxikituta daukala erakusten duen agiria.

8.1.2. Alde Zaharrean erroldatuta egonda 65 urte baino gehiago, menpekotasunen bat edo gaixotasunen bat dutenek,

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.
- NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea/ziurtagiri digitala.
- Dagokion administrazioak emandako menpekotasun edo gaixotasunaren frogagiria.
- Ibilgailuaren jabearen NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea
- Zirkulatze baimena tituludun berberarekin.
- Behar den kasuetan, lan zioengatik erabilera atxikituta daukala erakusten duen agiria.

8.1.3. Bermeon erroldatuta ez daudenek eta Alde Zaharrean kokatuta dagoen bigarren bizitxteen jabeek:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.

- NAN/Bizileku Txartela/Pasaporte / ziurtagiri digitala.
- Etxebizitzaren jabetzaren froga agiria.
- Zirkulatze baimena tituludun berberarekin.
- Behar den kasuetan, lan zioengatik erabilera atxikituta daukala erakusten duen agiria.

8.1.4. Garajeko titullarrak edo erabiltzaileak: Pertsona fisiko edo juridikoak, Oinezkoentzako gunearen barruan baimendu edo onartutako garaje lekuren baten jabe edo errentaria. Bizilekua aintzat hartu barik, oinezkoentzako gunearen barruan baimendu edo onartutako garaje-lekuren bat erabiltzen duen edozein pertsona fisikoa zein juridikoa.

Baldintzak:

- Ibilgailuaren jabea garajearen titularra edo errenta kontratuan agertzen den pertsona fisikoa zein juridiko berbera izan behar da. Halaber zirkulatze baimenean pertsona berbera agertuko da.
- Indarrean dagoen gida baimena edukitzea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.
- NAN/Bizileku Txartela/Pasaporte / ziurtagiri digitala.
- Zirkulatze baimena tituludun berberarekin.
- Behar den kasuetan, lan zioengatik erabilera atxikitua daukala erakusten duen agiria.
- Garaje lekuaren titulartasuna, errentamendu kontratua edo jabearen erabilpen baimena.

8.1.5 Merkatariak eta ostalariak: Ordenantzaren aplikazio esparruaren barruan onartutako jardueraren titullarrak.

Gremioak: Bermeen, behar den moduan onartutako egoitza duen jardueraren baten profesionalak.

Baldintzak:

- Baimendu beharreko ibilgailuaren titularra, fisikoa edo juridikoa, jardueraren titularra bera izango da, edo bere erabilera pertsona horri lotuta egongo da eta zirkulatze baimenean agertuko da.
- Indarrean dagoen gida baimena edukitzea.
- Jarduera Bermeoko Udalaren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen patroian inskribatuta egongo da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.

- NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea / ziurtagiri digitala.
- Zirkulatze baimena tituludun berberarekin.
- Jarduera garatzeko udal baimena.
- Lan zioengatik erabilera atxikitua daukala erakusten duen agiria.
- Ibilgailu bi baino gehiago behar izanez gero, dagokion obra baimena.

8.1.6. Alde zaharreen kokatuta dauden lokalen jabeak: Pertsona fisiko edo juridikoak, Oinezkoentzako gunearen barruan lokal baten jabe edo errentaria.

Baldintzak:

- Ibilgailuaren jabea lokalaren titularra edo errenta kontratuan agertzen den pertsona fisikoa zein juridiko berbera izan behar da. Halaber zirkulatze baimenean pertsona berbera agertuko da.
- Indarrean dagoen gida baimena edukitzea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.
- NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea/ ziurtagiri digitala.
- Zirkulatze baimena tituludun berberarekin.
- Behar den kasuetan, lan zioengatik erabilera atxikitua daukala erakusten duen agiria.
- Lokalaren titulartasuna edo errentamendu kontratua

8.2. Portuzarreko eremuan:

8.2.1. Portuzarretik sarbidea duten etxebizitzetan erroldatuta daudenak:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.
NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea/ ziurtagiri digitala
Erroldatuta dagoela Udalak ofizioz konprobatuko du.

8.2.2. Amarristak:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala, amarre zenbakia nahitaezkoa da eta inprimakian jasota egon behar da.
- NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea/ ziurtagiri digitala.
- EKP-k emandako dokumentua amarreraren titularidadea adierazteko (faktura) edo EJKo titulartasun agiria.

8.2.3. Portuzarreko hostalari eta merkatariak:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.
- NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea/ziurtagiri digitala.
- Jarduera Bermeoko Udalaren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen patroian inskribatuta dagoela ofizioz aztertuko da.

8.2.4 Portuzarreko ekintzaileak

Euren jarduna portuzarrean egiten duten ekintzaileek dira.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.
 - NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea/ziurtagiri digitala.
- Jarduera Bermeoko Udalaren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen patroian inskribatuta dagoela ofizioz aztertuko da.

8.2.5. Portuzarreko lonjen erabiltzaileak

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide inprimaki ofiziala.
- NAN/Bizileku Txartela/Pasaportea/ziurtagiri digitala.
- Lonjaren titularidadea kreditatzen duen agiri ofiziala.

9. artikulua.—Salbuespenak

Ordutegi erregimen honetatik eta xedatutako betekizunetatik kanpo geratzen dira ondoren aipatzen diren zerbitzu-ibilgailuak:

- a. Larrialdi eta segurtasun zerbitzuetaoak, Laguntza eta Suhiltzaile zerbitzuetaoak, zerbitzu publikoa eskaintzen duten udal ibilgailuak, emergentzia zerbitzuak, taxiak eta orokorrean zerbitzu publikoak emateko eta bermatzeko behar diren gainerakoak.
- b. Bizikletak.

Salbuespen kasu guzti hauek oinezko gunetara sartzeko baimena bermatuta izango dute, eta ofizioz datu basean baimen iraunkor moduan jasota geldituko dira, horretarako beharrezko informazio eta dokumentazioa eskuratuta.

10. artikulua.—Datu aldaketen jakinarazpena

Edozein titulartasun aldaketa, nahiz garajetan gerta daiteken jabetza edo errenta kontratuaren eskualdaketa, nahiz bizileku aldaketa, zein baimena eskuratzeko aintzat hartu den edozein datutan edo gorabeheretan aldaketarik egonez gero, baimen titulua duten pertsona guztiek aldaketa horren berri eman beharko diote udalari. Horrela egin ezean, kasuan kasu ezarri daitezkeen zehapenen kalte gabe, Bermeoko Udalak baimen

lizentzia indargabetzeko, eta gutxienez, urtebeteko (1) epea eta gehienez hiru (3) urteko epean, baimena ukatzeko ere, ahalmena du.

11. artikulua.—Arau-haustek eta zehapenak: Xedapen orokorrak

Ordenantza honen artikuluetan xedatzen denaren aurka aritzea edo ez betetzea, Trafikoa Antolatzeako Araudiaren arau-hauste moduan joko da. Beraz, arau-hauste hauek guztiak, Trafiko, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasuna Legea, nahiz bera garatzen duen Erregelamendua eta berarekin bat datozen gainontzeko lege xedapenen arabera tramitatuko dira.

Arau-haustek zehapenak ekarriko ditu. Zehapenak Trafiko, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasuna Legeak xedatutako prozeduraren arabera, edo legeez nahiz erregelamenduz lege hori ordezkatzeko duen prozeduraren bidez, ezarriko dira.

Udaltzaingo agentek eta arloan gaitasuna duten gainontzeko funtzionarioek ordenantza honen arau-hausteengatik eragiten diren salaketak bete behar dituzte.

Ordenantza honetan aurreikusten ez diren gorabeheretan Bide Segurtasuneko Legeak, eta hori bera garatzeko ematen diren gainontzeko lege araudiek xedatzen dutena aplikatuko da.

Ordenantza honen edozein xedapen ez betetzea edo bere kontra aritzea Arau- haustetzat jotzen da. Arau-haustek hiru mota ezberdinetan sailkatzen dira eta ondoren adierazten diren zehapenak ekartzen dituzte:

1. Arau-hauste Arina: 90 euroko isuna:

- Gelditzeko baimendutako gehieneko denbora 15 minutu baino gutxiago gainditu.

2. Arau-hauste Larria: 150 euro arteko isuna:

- Gelditzeko baimendutako gehieneko denbora 15 minutu edo gehiago gainditu.

3. Arau-hauste Oso Larria: 300euro arteko isuna eta Baimena indargabetzeko edo ukatzeko aukera:

- a. Ibilgailuaren jabetza tituluan egondako edozein aldaketa, nahiz garajetan gertatu jabetza edo errenta kontratuaren eskualdaketa, nahiz bizileku aldaketa, zein bizilagun, jabe edo garaje errentariei baimena emateko aintzat hartu den edozein datutan edo gora- beheretan egondako aldaketak, udalari ez jakinaraztea
- b. Bere kasuan eta lizentzia baimenak berritze orduan, aurkeztu beharreko

- zinpeko adierazpenean iruzurra egitea, horren ondorioz eragin zitezkeen erantzukizun penalak kaltetu Gabe.
- c. Baimen gabeko ibilgailuan Oinezkoentzako Gunean sartzea.
 - d. Geldiuneak Oinezkoentzako gunean.

Behin eta berriro arau-haustea egitea Errepikapen moduan joko da, eta arau-hausteagatik ezarri zitezkeen zigorrekin batera, lizentzia baimena indargabetzeko eta gutxienez urtebete (1) eta gehienez hiru (3) urteko epean ukatzeko ere, zioa izango da.

Isuna ordaindu arren, salatutako ibilgailuak ezin izango du jarraitu dagokion eremuan, sartzeko ordutegia eta gehieneko geldiupeko sistema aplikatuz.

12. artikulua.—Elkarreragingarritasuna:

Bermeoko Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden interesdunen datuak egiaztatuko eta kontsultatuko ditu, bai eta izapide administratiboa burutzeko eskatzen den beste edozein ere oinezkoentzako gunera sartzeko baimen iraunkor zein behin-behinekoen izapidetzan.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzaren oinarria, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua, pertsona fisikoaren babesari buruzkoa, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan datza, non aitortzen den herritarrek eskubidea dutela administrazioaren esku dauden edo beste edozein administrazioi igorritako dokumentuak ez aurkezteko, aplikagarria izan daitekeen gainerako legeriaren kalte gabe.

Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesdunak [edo haren ordezkariak] datu horiek erabiltzearen aurka dagoela adierazten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa balitz, Bermeoko Udalak oinezkoentzako gunera sartzeko baimen horiek izapidetzeko behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztea eskatuko lituzke.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa: Larrialdi, premia edo interes publikoko zioak direla eta, Alkate buruak ordenantza honen aplikazioa, behinik behin baliorik gabe utzi dezake, aldi baterako edo egokitzen jo daitezkeen egunetan eta bere eremu osoan edo batean.

Bigarrena: Behar den moduan justifikatutako larrialdi, premia edo interes publikoko zioak direla eta Alkateburuak Ordenantza honek xedatzen dituen baimenen indarraldia aldatu, mugatu edo luzatu dezake, eta baimenen izaera edo berau eskuratzeko baldintzak ere aldatu ahal izango ditu, oinarri edo argudio bat izanda, hasiera baten ordenantza

honetan jaso ez badira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2016eko irailaren 13ko 175 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Bermeo uriko alde zaharren oinezkoentzako gunea arautzen duen ordenantza, indarririk gabe geratzenda.

AZKEN XEDAPENAK

Lehengoa: Ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren indarrean sartuko da ordenantza hau.

Bigarrena: Ordenantza honetan aurreikusten ez diren gorabeheretan eta aplikatu beharreko kasuetarako, bere ordeztan, Trafiko, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Legea, Zirkulazio Erregelamendua eta lege horren garapeneko gainontzeko xedapenak aplikatuko dira.

Hirugarrena: Ordenantza honetan xedatutako zehapen edo zigorren zenbateko edo kopuruak berraztertu ahal izango dira.

Bermeon 2026ko maiatzaren 4an Alkatea

Nadia Nemeh Shomaly